

# KUTXAREN

*kontrol* **PUBLIKOA**  
*eta* **SOZIALA**

Kutxa eta Kutxabanken izaera  
publiko eta soziala bermatzeko  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
Iurraldeko eragileei eta jendarteari  
luzatutako proposamena

**BADUGU AUKERA**  
**BADUGU BEHARRA**

## Edukien aurkibidea

<b>1. Hitzaurrea</b> .....	3
<b>2. Historiari begirada</b> .....	3
Kutxen Eezaugarriak.....	4
Azken hamarkada hauetako jazoerak .....	5
Kutxabanken sorrera .....	6
<b>3. Kutxa eta Kutxabanken izaera publiko eta sozialerako proposamena</b> .....	8
Helburuak .....	8
Proposamena .....	8
Kutxaren izaera publikoari dagokionez .....	9
Kutxabanken izaera publiko eta sozialari eta finantza ildoari dagokionez.....	12
Gizarte-ekintzari dagokionez.....	12
<b>4. Oinarrian sendo baina eskualdatze-formula eta prozesua adosteko borondate osoarekin</b> .....	12
<b>5. Kutxa Fundazioaren helburuaz, izaeraz eta parte-hartze eta izaera demokratiko eta sozialaz...</b>	13

## 1. Hitzaurrea

Aldaketa garaian bizi gara, eredu zaharra erortzen ari da, batzuetan nahi baino astiroago, eta eredu berri bat ari da sortzen; hori ere ez da gure desio soilen mende. Aldaketa horretan zenbait tresna desagertuko dira, garai berrietan behar ez direlako; beste batzuk sortuko dira, berriak; eta beste batzuk, azkenik, beren izana galdu gabe, moldatu egingo dira. Azken horien artean, argi eta garbi ikusten dugu Gipuzkoako Kutxa horietako bat izango dela.

## 2. Historiari begirada

Donostiako Aurrezki Kutxa (“Caja de Ahorros de San Sebastian y Monte de Piedad”), 1879an sortu zen Donostiako Udalaren bultzadaz; eta 1896an, berriz, Gipuzkoako Aldundiaren babesaz, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa.

Azken 125 urteotan, kutxek paper garrantzitsu bat bete dute Gipuzkoako garapen ekonomiko, sozial eta kulturean hainbat eta hainbat ekimen eta proiektu bultzatuz. Orduetik hona, garai ezberdinak bizi izan ditu, hamaika proiektu garatu, batzuk emankorrakoak besteak baino, baina mota askotarikoak, zailtzarrik gabe. Dokumentu honek ez du nahi Kutxaren historian murgildu, baina garrantzitsua iruditzen zaigu ibilbide historiko horren zenbait ezaugarri aipatzea, bere izana osatzen dutenak, gaur egungo egoera hobeto ulertu eta jokoan dagoena argiago ikusteko.

## Kutxen ezaugarriak

Kutxen hasierako helburua izan zen herritarren bizi baldintzak hobetzea. Langile eta herri klaseen bizi baldintza kaxkarrek piztu zuten instituzio hauen beharra. Gipuzkoako burgesiaren hainbat pertsonalitatek bultzatu zuten kutxen sorrera, aurrezkiaren bidez langile eta herri klaseen bizi baldintzak hobetzeko.<sup>1</sup>

Ez ziren horretara mugatu: kutxek berebiziko papera bete zuten Gipuzkoako garapen ekonomikoan. Hasierako bultzatzaileetako bat izan zen Tomás Balbás y Ageo, enpresari eta politikaria. Bere lelo nagusiak argi islatzen du kutxen filosofia eta inplikazioa lurraldearen garapenean: “El ahorro del país entero, a él deben volver bajo la forma de beneficencia y obras de utilidad pública<sup>2</sup>”. Bere iritziz —horretan oso pentsamolde modernoa zuen— kutxen zeregina ez zen soilik behartsuei laguntzea, baizik onura publikoko proiektuak sustatzea ere.

Ikuspuntu horretatik, kutxek operazio eta proiektu ezberdinak bultzatu zituzten. Operazio batzuk banku izaera zuten (giro mutuo<sup>3</sup>); beste batzuk, aldiz, lurralde garapena sustatzeko balio izan zuten (herrialdearen eta udalen zor publikoaren erosketak)<sup>4</sup>.

Gipuzkoako kutxen beste ezaugarri nabarmen bat izan zen bere izaera publikoa. Beste batzuen sorrera pribatua edo sasi-publikoa bazen ere, Gipuzkoako kasuan, kutxen atzean instituzioak zeuden bere babesa emanaz. Pertsona batzuen eragina nabarmena baldin bazen ere, sektore publikoaren laguntza argia izan zen. Era berean, Gipuzkoako kutxek instituzioen zerbitzura jarri zuten bere ahalmen ekonomikoak<sup>5</sup>.

---

1 Remitiéndonos a su origen, fueron las malas condiciones de vida de amplias capas de la población las que estimularon el nacimiento de las instituciones de ahorro popular, junto con un afán benéfico y filantrópico de determinadas personalidades de la burguesía que, conscientes de esa situación, impulsaron su nacimiento proponiendo como solución a los problemas de las clases populares la virtud del ahorro, tan querida para dichas personas. Merced al ahorro se podría lograr una mínima propiedad monetaria que sirviera para corregir su situación y limitar su posible tentación de revolución social.

Cajas de Ahorro en Vasconia. Enciclopedia Auñamendi

2 La Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa CAP. Enciclopedia Auñamendi

3 El giro mutuo, actividad de claro componente bancario, tuvo como objetivo favorecer las relaciones comerciales entre las diferentes localidades guipuzcoanas. Fue autorizado por el Ministerio de Hacienda (R.O. de 17 de agosto de 1897) precisamente por tener ese fin comercial, y comenzó sus operaciones en 1899. Se podían realizar giros de 1 a 750 pesetas entre las diversas sucursales de la Caja. No se movieron grandes cantidades de dinero (de 1899 a 1910 las operaciones ascendieron a 3.645.174,24 pesetas), por lo tanto es fácil suponer que fueron los pequeños comerciantes y artesanos los principales clientes de este servicio. Ese mismo año se establecieron las transferencias entre libretas, iniciativa pionera, que con el tiempo se iría extendiendo a otras Cajas, para finalmente permitirse transferir de una a otra por todo el territorio español (1906).

La Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa CAP. Enciclopedia Auñamendi

4 La compra de deuda provincial y municipal sirvió indirectamente para impulsar el desarrollo de la provincia, puesto que el importe obtenido se empleaba en la mejora de las infraestructuras que impulsaban su modernización.

La Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa CAP. Enciclopedia Auñamendi

5 Mientras que otras tuvieron un origen privado o semipúblico -Sociedades de Amigos del País, de Socorros Mutuos, Ligas de Contribuyentes, Sociedades Patrióticas, iniciativas filantrópicas, etc.- en el País Vasco Navarro su origen fue público. Detrás de todas ellas, estuvo un Ayuntamiento o una Diputación dando su respaldo económico, aunque no por ello haya que olvidarse de la destacada actuación de determinados prohombres de la burguesía provincial o local.

Cajas de Ahorro en Vasconia. Enciclopedia Auñamendi

Ikuspuntu horretatik, kutxek operazio eta proiektu ezberdinak bultzatu zituzten. Operazio batzuk banku izaera zuten (giro mutuo<sup>6</sup>); beste batzuk, aldiz, lurralde garapena sustatzeko balio izan zuten (herrialdearen eta udalen zor publikoaren erosketari)<sup>7</sup>.

Gipuzkoako kutxen beste ezaugarri nabarmen bat izan zen bere izaera publikoa. Beste batzuen sorrera pribatua edo sasi-publikoa bazen ere, Gipuzkoako kasuan, kutxen atzean instituzioak zeuden bere babesa emanaz. Pertsona batzuen eragina nabarmena baldin bazen ere, sektore publikoaren laguntza argia izan zen. Era berean, Gipuzkoako kutxek instituzioen zerbitzura jarri zuten bere ahalmen ekonomikoa.

### **Azken hamarkada hauetako jazoerak**

1990ean, Donostiako eta Gipuzkoako aurrezki kutxek bat egin zuten. Bategitetik sortutako kutxa berriak Kutxa izena hartu zuen, bi entitate fundatzaileen izaera bera mantendu zen eta ordura arte bi kutxek izandako helburuak berdina izaten jarraitu zuten.

1991n EAEko Aurrezki Kutxen Legea onartu zen Gasteizko Legebiltzarrean eta lege horren ondorioz, kutxen izaera soziala eta publikoa, nagusiki, Kutxaren Batzar Nagusiaren esku gelditu zen, ordezkari eta edo parte hartzea honekin:

- Entitate Fundatzaileek (GFAk eta Donostiako Udalak) batzarraren % 20ren ordezkari izan dute.
- Bezeroek batzarraren % 43ren ordezkari izan dute.
- Langileek batzarraren % 7ren ordezkari izan dute.
- Beren udalerrian kutxaren sukurtsala izan duten udalek batzarraren % 30en ordezkari izan dute.

Kutxako batzarraren osaera eta banaketa horrek ederki erakusten du lehen aipatutako helburu ekonomiko, publiko eta sozialez gain, izaera publiko eta sozialerako asmoa erabatekoa izan dela kutxen izaera historikoan.

Hala ere, izaera publikoa eskuartean zuten erakundeetako ordezkariak hasierako erroei bizkar eman eta beste norabide batean kokatu zuten Kutxaren jarduna. Horren isla dira Levanteko eta Andaluziako hainbat eskualdetan buruturiko inbertsioak edota Banco Madrid erosi eta berriz saldu izana. Batean zein bestean, hasierako asmo eta helburu sozialak ahaztu eta lukurrerian eta espekulazioan oinarritutako epe motzeko etekina finkatu zuten helburu. Jakina denez, kasu gehienetan, ondorioak oso negatiboak izan dira Kutxarentzat, oraindik orain zenbait galera pairatzen ari garelarik.

<sup>6</sup> Otra de las condiciones propias que debe señalarse es la autonomía económica que el régimen de Concierdos Económicos permitía y que fue muy importante, sobre todo en las provinciales. Esto les permitió gozar de una mayor autonomía y personalidad dentro del conjunto de las Cajas de Ahorros españolas, y también posibilitó su actuación como bancos municipales o provinciales, al destinar parte de sus capitales a financiar instituciones benéficas o asistenciales, o a la concesión de créditos para la realización de obras públicas y para aminorar la deuda municipal o provincial. Cajas de Ahorro en Vasconia. Enciclopedia Auñamendi

<sup>7</sup> Cajas de Ahorro en Vasconia. Enciclopedia Auñamendi

### Kutxabanken sorrera

Galerak ekarri zituzten higiezin finantza-operazio haiek eragin handia izan zuten gerora etorri zen Kutxabanken sorreran. Izan ere, Kutxabanken sorrerako akordioan, kutxen arteko banaketa, besteak beste, une horretan kutxa bakoitzak zuen balioaren arabera izatea adostu zenez, aipatutako galeren ondorioz, bankuaren % 32 soilik geratu zen Kutxaren esku.

Esan bezala, 2011n, EAEko hiru kutxek (Kutxa, BBK eta Vital) Kutxabank osatzeko lehen urratsak eman zituzten eta urriaren 20an hiru kutxek batzar bereziak egin zituzten. Batzar haietan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren ordezkariak batek kutxetako lehendakariekin erdietsitako akordioa bategite-kontratuaren baitan jaso zen “Berritze Kontratua” deritzonaren bidez. Hiru kutxetako batzarrek ia aho batez onartutako berritze-kontratuaren oinarriak, hauek izan ziren:

- Kutxetako hiru batzarrek, eta ondorioz Gipuzkoako Kutxarenak ere, kapital pribatua sartzearen aurkako jarrera dute.
- Legeak edo arautzaileak bestelako norabidea hartzera edota bankuaren kapitala handitzera behartuko balu, izaera publiko eta soziala bermatzeko neurri zehatzak hartuko ditu; hala nola, kutxen arteko akzioen salmenta edota auto-kartera deritzon aukera.
- Edonola ere, eta jabegoari dagozkion balizko aldaketetan, azken erabakia kutxetako hiru batzarretako bi herenetako gehiengoz onartu behar da.
- Kutxabankek gizarte-ekintzaren alorrean hartutako konpromisoak bere gain hartu eta mozkinen % 30 horretara zuzentzea denbora mugagabe.
- Lan-harremanei eta lan-esparruari buruz erabakiak hartzeko langileen iritzia eta erabakia kontutan hartzea.

2012ko urtarrilaren 1ean Kutxabanken finantza-jarduera martxan jarri zelarik, lehen egunetik hasi ziren kutxen izaera, historia eta urteetako funtzio soziala bazterrean uzten, eta bankuaren negozio hutsa banatzeko ildo indartzen. Gipuzkoako Foru Aldundiak oso modu negatiboan baloratu du eta baloratzen du ildo hori.

2012ko ekainean, EAEko legebiltzarrean lantzen ari zen EAEko Aurrezki Kutxen Lege berrian, besteak beste, hiru kutxen batzarren osaketarako ordezkariak eraberritu bat adostu zuten. Hona hemen 1991ko eta 2012ko Aurrezki Kutxen Legeen arteko desberdintasunak:

	3/1991 Legea Partaidetza %	11/2012 Legea Partaidetza %
Entitate fundatzaileak	20	17
Bezeroak	43	48
Langileak	7	7
Udalak	30	17
Gizarte-eragileak	-	5
Batzar Nagusiak	-	6

Ondoren, aipatutako legean oinarriturik, hiru kutxetako batzarrak eta administrazio kontseiluak berri-zeko prozesuari ekin zitzaion. Bezeroen arteko hauteskundeak egin ziren eta instituzio ezberdinek beren ordezkariak hautatu zituzten.

Aldaketa horiek guztiak burutzen ari ziren bitartean, Kutxabankek martxan jarri zuen bere finantza-jarduera eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak kutxen sorreran helburu gisa jarri zituzten oinarri haiek ahaztu eta bestelako finantza erabakiak hartzen hasi ziren:

- Bertako aurrezkiak bertan inbertitzeko konpromisoa aspaldi finkatutako helburua bazen ere, Gipuzkoaren kasuan bederen, bertako enpresek gero eta zailtasun handiagoak topatu zituzten finantziatorako.
- Kutxabankek, bertako enpresa ezberdinen jabea izaki, desinbertsio-prozesu bati ekin zion (Euskaltel, CAF, Ibermatica...) lurraldean, eta Euskal Herrian oro har, hain garrantzitsua den jarduera industrialarekiko bere konpromisoa alboratuz.
- Bitartean, eta bertako ekonomian eta enpresetan inbertitzeko arazoak jartzen ziren bitartean, Kutxabankek finantza operazio erraldoiak burutu zituen estatu mailan, adibidez, Sareb edo “banku gaizto” deritzon 1.000 milioi euroko inbertsioa eginez (5.000 milioi eurora iristeko aukerarekin), 1.200 milioi Caja Surren, Yerecial 600 milioi, Cia Promotora del Estrecho 600 milioi, Neinor 531 milioi...
- Krisiaren eta langabeziaren ondorioz, mailegu hipotekarioa ordaintzeko arazoak edo ezintasunak dituzten familiak kaleratzeko prozesuei ekin zien, nahiz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak, entitate fundatzaile gisa, bestelako irtenbideak bilatzeko etengabeko deiak egin dizkiogun.
- Era berean, IRPH bezalako klausulak aplikatzen jarraitu zuen eta horiek indargabetzeko unea iritsita, beste aldera begiratu eta aplikatzen jarraitu du, nahiz eta Aldundi honek dituen ordezkarien bitartez berau indargabetzeko eginiko proposamena Gipuzkoako Kutxaren administrazio kontseiluan onartu. Bestalde, epaileek aurkako epaiak kaleratzen hasi direnean ere, atzera egin beharrean, errekurtsioa aurkeztu eta hasierako helburu eta izaera sozial guztia ahaztu dituen finantza entitate arrunt baten jarrerarekin jokatu du.
- Mila lanpostutik gora murriztu ditu lehen bi urte hauetan eta horrek, langileengan zein zerbitzuarengan eragin oso negatiboak sortu ditu.
- Azkenik, gizarte-ekintzaren alorrean, Aldundi honekin eta Gipuzkoako hainbat eta hainbat udal eta erakunderekin hartutako konpromisoak betetzeari utzi dio, eta gizarte-ekintzaren aurrekontua ikaragarri jaitsi da. Ondorioz, gure lurralderako oso garrantzitsuak diren zenbait proiektu kinka larrian jartzeaz gain, hainbat erakunde publikok euren gain hartu behar izan dituzte, halaber, Kutxak bete ez dituen zenbait konpromiso ekonomiko.

Horrek guztiak, agerian utzi du Foru Aldundi honek eta Donostiako Udalak sustatutako bi kutxen sorreran eta ondoren sortutako Kutxaren helburuak ahaztu eta Kutxabanken finantza-jarduera krisi egoera honetara ekarri gaituen merkatuaren logika ankerraren baitan kokatu nahi dutela, baita kutxetatik egin daitekeen gizarte-ekintza apurra bera ere kolokan jarriaz.

Norabide horretan ulertzen dugu 2013eko abenduaren 27an Espainiako Kongresuan onartutako Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioei buruzko 26/2013 Legearen helburua eta xedea. PPren eta EAJren bozekin onartutako lege horrek aukera ezberdinak ematen baditu ere, oro har, izaera publikoa eta soziala murriztea eta kapital pribatuari bide ematea ditu helburu nagusiak.

Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioei buruzko 26/2013 Legearen irakurketa zehatz batean oinarrituta, Gipuzkoako Kutxaren ibilbide berdintsua izan duten Vital eta BBK desagerrarazi eta banku-fundazio bihurtu berri dituzte. Horretaz gain, hainbat arduradun publiko eta instituzionalen adierazpenen bidez, jakin dugu kapital pribatuari sarrera eman eta egungo akzioen % 70 saltzea aztertzen ari dela.

Hori gutxi balitz, izaera publikoa eta soziala desagerraraziz eta kapital pribatua sartuz, Kutxabanken egungo ildo finantzario kezkarria areagotuko litzateke, Gipuzkoako erakundeek urtetan babestu eta bultzatu nahi izan duten Kutxen izaera eta funtzio soziala behin betirako desagerraraziz eta herritarrei eta gure ekonomiari egin dakioken kalterik handienetakoa eraginez.

### 3. Kutxa eta Kutxabanken izaera publiko eta sozialerako proposamena

#### Helburuak

Gipuzkoako Foru Aldundiak, egungo egoerarekin kezkatuta, aukera juridikoeninguruko txosten sakona eskatu zuen uztailan (ikus eranskina) eta hemen jasotzen dugun proposamena aipatu txostena du oinarri.

Azterketa juridiko horrek erakutsi digu Kutxa banku-fundazio bihurtzeak eta Kutxabanken pribatizazioak badutela alternatiba eta alternatiba hori da proposamen honetan jasotzen duguna.

Aurkeztu aurretik ordea, proposamenaren helburuak aurkeztu nahi ditugu. Izan ere, zer proposatzen dugun bezain garrantzitsua baita zergatik eta zertarako proposatzen dugun argi uztea:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxaren izaera publiko eta soziala bermatzea du lehen helburu.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiak, izaera publiko eta sozial horren bidez, entitate fundatzaileek hasieratik finkatutako helburuak berreskuratu nahi ditu XXI. mendeko Euskal Herrira egokitutako Kutxabank eta kutxen izaera eta helburuak bermatuz.
3. Bizi dugun krisi ekonomiko latz honetatik ateratzeko eta Gipuzkoa eta Euskal Herri Berria eraikitzeko finantza-tresna publiko eta soziala izatea.
4. Bertako ekonomia errearen mesedetan arituko den finantza-entitatea izatea eta herri zein eskualdeetako errealitate sozialarekin eta ekonomikoekin lotuta egotea, izan daitezkeen behar ekonomiko eta sozialen aldeko inbertsioak eginez:
  - Bertako autonomoei, merkatariei, enpresari txikiei eta kooperatibistei finantziarioa bermatzea.
  - Udalei aurreikusi ditzaketen inbertsioei begira, finantza-baliabideak eskaintzea.
  - Kutxen sorreran egon zen langileekiko eta familiekiko begirunea berreskuratzea eta etxe-kalderatzeak edota IRPH bezalako jarduerekin amaitzea eta familiek dituzten finantza beharretarako eskaintza eraginkor eta justua eskaintzea.
  - Oro har, herriz herri hedatua egongo den finantza entitatea izatea. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko etengabeko konpromisoa izango duena, bai langile kopuru eta bitartekoen ikuspuntutik zein zerbitzuaren kalitate edota euskararen erabilpenarengatik ere.
  - Sorreratik hain garrantzitsua izan den gizarte-ekintzarekiko konpromisoak berrestea eta betetzea eta gizarte-ekintzak XXI. mendean bete behar duen papera denon artean berraztertzea eta garatzea.

#### Proposamena

Lehen aipatu dugun, eta eranskin gisa doan, txosten juridikoan oinarrituz, honako hau Kutxaren eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatuko lukeen proposamen zehatz, egingarri, legal eta integralerako aukera dugu.



**Kutxaren izaera publikoari dagokionez**

Gipuzkoako Kutxa Kutxabanken akzioen % 32ren jabe da. Akzioen kopuru horren jabe izateak urtea bukatu baino lehen banku-fundazio bihurtzera behartuko luke Aurrezki Kutxa eta Banku Fundazioei buruzko 26/2013 Legeak. Era berean, banku-fundazio bihurtuko balitz, aipatu legeak ezartzen dituen zenbait baldintza direla eta, Kutxabanken kapital pribatuaren sarrera erraztuko litzateke.

Kutxa ez balitz Kutxabanken kapitalaren % 5 baino gehiagoren jabe, ohiko fundazio izaten jarraitu ahal izango luke, gerora aipatuko dugun bezala, egun Kutxan dagoen izaera publiko eta sozial berberari eusteko aukerarekin.

Egin dugun azterketa juridiko sakonaren arabera, ez dago ez legerik ez bestelako araurik Kutxabanken akzioak erakunde publikoen esku jartzea galarazten duenik eta horixe da gure proposamenaren funtsa.

Ondorioz, eta indarrean dauden behar legetara egokitzeko konpromisoarekin baina era berean, izaera publiko eta soziala bermatzeko asmo irmoarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako aurrezki-kutxaren sortzailea izaki eta Kutxaren estatutuek aitortzen dioten entitate fundatzaile izaeran oinarrituta, Kutxak Kutxabanken dituen akzioak lurraldeko erakundeen (Udalen eta Foru Aldundiaren) esku uzteko doaneko eskualdatze-prozesua burutzea proposatzen du.

Beste modu batera esanda, Kutxak Kutxabanken dituen akzioak lurraldeko Udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean banatzea eta ondorioz, Kutxabanken akziodunak aipatutako erakundeak bihurtzea proposatzen dugu. Kutxak berak akzio batzuen jabetzari eutsiko dio eta gizarte-ekintza kudeatzeko helburua duen fundazio arrunt gisa mantenduko da. Izan ere, lurraldeko Udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, akzio horien jabetzak sortutako etekinak Kutxari emango dizkiote honek gizarte-ekintzan inberti ditzan.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamena gauzatzeko baldintza bakarra bete behar da: borondate politikoa izatea. Baita interes bakarra ere: herritarren interesak defendatzea.

Esan bezala, lege eta arau ezberdinak eta bertan agertzen diren baldintzak betetzeko eta akzioen banaketa kalkulatzeko, akzioen behin-behineko proportzio (ehuneko) honekin hastea proposatzen dugu:

Banaketa proposamena	Akzioak	%
Kutxa Fundazioa	99.960	4,998
Aldundia	99.960	4,998
Donostiako Udala	99.960	4,998
Gipuzkoa Udalak	340.120	17,006
<b>Guztira</b>	<b>640.000</b>	<b>32</b>

Udalerrien banaketarako irizpide hauek proposatzen ditugu:

- Donostia ez beste udalek orotara akzioen % 17,006 izango lituzkete; hau da, 340.120 akzio. Horien % 10 (34.012 akzio) 87 udalen artean banatuko dira modu linealean, horrek udal bakoitzari zuzenean 391 akzio-kopurua esleituko liokeelarik.
- Gainontzeko % 90, UFFFaren banaketa bezalaxe, populazioaren arabera banatzea proposatzen dugu, 2013eko urtarrilaren 1eko errolda kontutan hartuz eta dezimalak ezabatuz.

Ondorioz, hauxe da herri bakoitzerako Gipuzkoako Aldundiak egiten duen proposamena:

Herria	Akzio kopuru finkoa	Errolda	Akzioak erroldaren arabera	Akzioak Orotara
Abaltzisketa	391	330	192	583
Aduna	391	457	265	656
Aia	391	2.038	1.183	1.574
Aizarnazabal	391	770	447	838
Albistur	391	322	187	578
Alegia	391	1.756	1.019	1.410
Alkiza	391	380	221	612
Alzaga	391	164	95	486
Altzo	391	409	237	628
Amezketza	391	972	564	955
Andoain	391	14.630	8.493	8.884
Anoeta	391	1.872	1.087	1.478
Antzuola	391	2.189	1.271	1.662
Arama	391	217	126	517
Aretxabaleta	391	6.930	4.023	4.414
Arrasate	391	22.051	12.800	13.191
Asteasu	391	1.513	878	1.269
Astigarraga	391	5.304	3.079	3.470
Ataun	391	1.681	976	1.367
Azkoitia	391	11.463	6.654	7.045
Azpeitia	391	14.509	8.422	8.813
Baliarrain	391	131	76	467
Beasain	391	13.792	8.006	8.397
Beizama	391	170	99	490
Belauntza	391	269	156	547
Berastegi	391	1.067	619	1.010
Bergara	391	14.763	8.570	8.961
Berrobi	391	564	327	718
Bidegoian	391	525	305	696
Deba	391	5.424	3.149	3.540
Eibar	391	27.439	15.928	16.319
Elduain	391	239	139	530
Elgeta	391	1.139	661	1.052
Elgoibar	391	11.518	6.686	7.077
Errenteria	391	39.178	22.742	23.133
Errezil	391	606	352	743
Eskoriatza	391	4.064	2.359	2.750
Ezkio-ltxaso	391	602	349	740
Gabiria	391	496	288	679
Gaintza	391	119	69	460
Gaztelu	391	170	99	490
Getaria	391	2.686	1.559	1.950
Hernani	391	19.354	11.235	11.626
Hernialde	391	352	204	595

<b>Herria</b>	<b>Akzio kopuru finkoa</b>	<b>Errolda</b>	<b>Akzioak erroldaren arabera</b>	<b>Akzioak Orotara</b>
Hondarribi	391	16.795	9.749	10.140
Ibarra	391	4.268	2.478	2.869
Idiazabal	391	2.299	1.335	1.726
Ikaztegieta	391	464	269	660
Irun	391	61.113	35.476	35.867
Irura	391	1.665	967	1.358
Itsasondo	391	669	388	779
Larraul	391	259	150	541
Lasarte-Oria	391	18.024	10.463	10.854
Lazkao	391	5.486	3.185	3.576
Leaburu	391	362	210	601
Legazpi	391	8.638	5.014	5.405
Legorreta	391	1.491	866	1.257
Leintz-Gatzaga	391	258	150	541
Lezo	391	6.054	3.514	3.905
Lizartza	391	637	370	761
Mendaro	391	1.981	1.150	1.541
Mutiloa	391	252	146	537
Mutriku	391	5.225	3.033	3.424
Oiartzun	391	9.995	5.802	6.193
Olaberria	391	942	547	938
Oñati	391	11.202	6.503	6.894
Ordizia	391	9.767	5.670	6.061
Orendain	391	192	111	502
Orexa	391	122	71	462
Orio	391	5.524	3.207	3.598
Ormaiztegi	391	1.312	762	1.153
Pasaia	391	15.849	9.200	9.591
Segura	391	1.473	855	1.246
Soraluze	391	4.018	2.332	2.723
Tolosa	391	18.836	10.934	11.325
Urnieta	391	6.214	3.607	3.998
Urretxu	391	6.853	3.978	4.369
Usurbil	391	6.111	3.547	3.938
Villabona	391	5.882	3.414	3.805
Zaldibia	391	1.528	887	1.278
Zarautz	391	22.760	13.212	13.603
Zegama	391	1547	898	1.289
Zerain	391	263	153	544
Zestoa	391	3.650	2.119	2.510
Zizurkil	391	2.994	1.738	2.129
Zumaia	391	9.626	5.588	5.979
Zumarraga	391	10.094	5.859	6.250

Azal dutako eskualdatze-prozesu horrek, esan bezala, egungo legedia betetzen du eta aurrera begira ondorio positibo asko ekarriko ditu.

### **Kutxabanken izaera publiko eta sozialari eta finantza ildoari dagokionez**

Batetik, Gipuzkoako Kutxa, instituzio fundatzaileak eta Udalak, Kutxabanken akziodunak izango dira eta horrek Kutxabaneko akziodunen batzarrean parte hartu eta Kutxabanken finantza-ildoaren inguruan bere ekarpena egiteko aukera emango die; hasieran esan dugun bezala, Foru Aldundi honen ustez, Kutxabanken finantza-ildoak norabidez aldatu eta kutxek hasieran izan zuten funtzio soziala berreskuratzea da zehaztu eta bultzatu beharrekoa.

Kutxabanken estatutuen arabera, egun, hiru pertsonak soilik osatzen dute akziodunen batzar orokorra: hiru kutxetako akzioak ordezkatzeko dituzten orokorrean, akziodun guztiek parte hartu ahal izango dutenez, hemen aipatzen dugun eskualdatze-prozesua eginez gero, Gipuzkoako erakunde publiko guztiek parte hartu ahal izango dute bertan. Hala, gaur egungo testuinguru ekonomiko latzean, gure herriko familia, erakunde publiko eta enpresentzat hain garrantzitsua den finantza-erakundearen finantza-politikak eztabaidatu ahal izango dira, Kutxabanken finantza-ildoan zuzenean eraginez.

Edonola ere, oso kontuan dugu Kutxaren esku-hartzea Kutxabanken % 32koa dela, eta beraz, Kutxabanken beraren izaera publiko eta soziala berreskuratu ahal izateko, gainerako akzionistek, hau da, Vital eta BBKk, banku-fundazio izateari utzi eta eskualdatze-prozesu bera egin beharko dutela. Lehen aipatu bezala, prozesu hori burutzeko behar den gauza bakarra borondate politikoa da.

### **Gizarte-ekintzari dagokionez**

Akzioak beren gain hartzen dituzten lurraldeko erakunde guztiak Kutxabanken mozkinen hartzaileak izango dira. Mozkin horiek Kutxa Fundazioari emango dizkiote honek gizarte-ekintzako ekimenak kudea ditzan. Gainera, XXI. mendean eta bizi dugun testuinguruan gizarte-ekintzak zer izan behar duen, nolakoa, zein bitartekoekin eta bitarteko horien ardura norena den zehazteko, plan estrategikoa eztabaidatu eta zehaztu beharko dugu guztion artean.

## **4. Oinarrian sendo baina eskualdatze-formula eta prozesua adosteko borondate osoarekin**

Atal honekin amaitu aurretik, Foru Aldundi honek zera azpimarratu nahi du: hemen azaldutako proposamenaren oinarriak Kutxa banku-fundazio ez bihurtzea eta izaera publiko eta soziala bermatzea du helburu nagusi. Helburu horrekin, ezinbestean, zorrotzak izango gara.

Edonola ere, argi azaldu nahi dugu Aldundi honek prestutasun osoa duela herrialde honetako gainontzeko eragile politiko, instituzional, sozial eta sindikalekin, eskualdatze-prozesu hori nolakoa izan behar duen adosteko. Hemen azaldu ditugun atal batzuk, legeak halabeharrez ezarritakoak dira; beste batzuk, aldiz, erabat eztabaidagarriak. Eta Foru Aldundi hau, nola ez, eztabaidatzeko eta adostasunak lortzeko prest eta gogoz dago.

Era berean, Foru Aldundi honi, bereziki, Gipuzkoarako proposamena egitea badagokio ere, garbi esan nahi dugu hemen azaldutako proposamena, bakoitzak bere herrialdeko egoerara moldatuta eta adostuta, baliagarria izan daitekeela Arabako eta Bizkaiko egoerarako; izan ere, jada banku-fundazio bihurtuta ere, eskualdatze-prozesu hori burutzeko aukera badagoelako.

## 5. Kutxa Fundazioaren helburuaz, izaeraz eta parte-hartze eta izaera demokratiko eta sozialaz

Kutxabanken finantza-ildoaz ekarpena egiteaz gain, aurrera begira, Gipuzkoako Kutxaren helburu nagusia, gizarte-ekintza aurrera ateratzea litzateke. Horretarako, lehen aipatu dugun bezala, gizarte-ekintzaren plan estrategikoa eztabaidatu beharko da. Eztabaida horren ondorioz zehaztuko da zein egitasmo diren, egungo egoeran, Kutxaren gizarte-ekintzaren baitan bultzatu beharko direnak.

Edonola ere, atal honetan Kutxaren izaeraz, parte-hartzeaz eta izaera demokratiko eta sozialaz, Gipuzkoako Foru Aldundiak egin nahi duen proposamena azaltzera gatoz.

Eskualdatze-prozesuaren ondorioz, Kutxak ez luke banku-fundazio bihurtu beharko eta beraz, ohiko fundazioaren araudiak malgutasun handiagoa eskainiko lituzke parte-hartzea zabalduz izaera demokratiko eta soziala areagotzeko.

Egungo egoera ondokoa da:

	Kutxaren Asanblada	Administrazio Kontseilua
<b>Langileen ordezkariak</b>	6	1
<b>BBNN</b>	5	1
<b>Erakunde fundatzaileak</b>	14	3
<b>Udalak</b>	14	3
<b>Bezeroak</b>	36	6
<b>Gizarte-eragileak</b>	4	1
<b>Guztira</b>	79	15

Foru Aldundi honek, EAeko Aurrezki Kutxen 11/2012 Legean eginiko azken aldaketak negatibotzat jo zituen, udalen parte-hartzea murrizten zutelako. Edonola ere, proposamen honetan egin dugun akzioen banaketaren ondorioz, agerikoa da udalen parte hartzea, eragina eta garrantzia areagotu egiten dela, oro har.

Bestalde, onartu beharra dago, egungo EAeko Aurrezki Kutxen 11/2012 Legeak eragile sozialen parte-hartzea ahalbidetzen duela, aurreko EAeko Aurrezki Kutxen Legeak aitortzen ez zuen moduan. Azkenik, garrantzitsua iruditzen zaigu historikoki parte-hartze zuzena izan duten bezeroen edota langileen parte-hartzea ere aipatzea eta kontutan hartzea.

Ondorioz, Foru Aldundi honek egungo egoera, banaketa eta parte-hartzea bere horretan gelditzea proposatzen du Kutxa fundazio berrirako, hautaketa-prozedura honen bitartez:

- Entitate sortzaileek 3 patrono hautatuko dituzte, berariaz sortuko den gobernu organu partehartzailean 14 kideko ordezkari eutsiz.
- Udalek 3 patrono hautatuko dituzte, berariaz sortuko den gobernu organu partehartzailean 14 kideko ordezkari eutsiz. Udalen aukeraketarako orain arteko prozedura bera erabiliz burutuko da.
- Gipuzkoako Batzar Nagusiek patrono bat hautatuko dituzte, berariaz sortuko den gobernu organu partehartzailean 5 kideko ordezkari eutsiz.
- 
- Gizarte-eragileen artean patrono bat hautatuko dute, berariaz sortuko den gobernu organu partehartzailean 4 kideko ordezkari eutsiz. Gizarte-eragileen aukeraketarako, gizarte-ekintzaren alorrean inplikaturik dauden edo, oro har, Gipuzkoa mailan alor sozial eta kulturalean diharduten eragileei gonbidapena luzatu eta parte hartzeko borondatea azaltzen dutenen arteko zozketa burutuko da.
- Langileen ordezkarietarako patrono bat hautatuko dute, berariaz sortuko den gobernu organu partehartzailean 6 kideko ordezkari eutsiz. Horretarako, Kutxabankek Gipuzkoan dituen sukurtsaletako langileekin zerrendak aurkezteko aukera ireki eta bozaren bidez ordezkariak hautatzeko barne hauteskundeak egingo dira. Hauteskunde horien prozedura zehaztu eta emaitzatik ordezkariak nola ondorioztatzen diren definitzea langileen ordezkarietara sindikalarekin adostuko da.
- Bezeroek 6 patrono hautatuko dituzte, berariaz sortuko den gobernu organu partehartzailean 36 kideko ordezkari eutsiz. Hauen hautaketarako egun erabiltzen den prozesu bera erabiliko da, ezberdintasun batekin: orain artean Kutxaren bezeroen arteko zozketa batek definitzen zuen bozketan parte har zezaketen bezeroen zerrenda. Bezeroak une honetan Kutxabankekoak direnez eta ez Kutxarenak, Kutxak epe bat irekiko du kutxaren bozketan parte hartu nahi duten Gipuzkoako Kutxabankeko bezero guztiei irekia. Ondorioz, nahikoa izango da Kutxabankeko bezero gipuzkoarrak direla erakustea eta bozketan parte hartzeko beren borondatea azaltzea.

Aipatutako prozedurarekin eta ordezkarietarekin, Foru Aldundi honen asmoa da orain arteko batzarren ezaugarriak mantentzea eta orain artean posible izan den parte-hartze eta izaera demokratiko eta soziala ahalbideratzea. Nola ez, lehen ere aipa bezala, Foru Aldundi honek bere prestutasun osoa du helburu berdinekin egin daitezkeen bestelako prozedura eta ordezkarietara proposamenak aztertzeko.

Horixe da beraz gure borondatea eta prestutasuna. Gipuzkoa Berria eraiki nahi dugun honetan, akordio berrietarako borondate eta prestutasun osoa dugu. Kutxabanken eta Kutxaren ildo berritu nahi dutenen arteko akordioa da Foru Aldundi honek eskaintzen duena. Gipuzkoak eta Euskal Herriak, bertako herritarrek, eragileek eta oro har gure ekonomiak, behar duten akordioa.